



## FUNTSEZKO JARDUERAK

GAIU enpresa berritzailean, produktu bat sortuko dugunez; gure funtsezko jarduera **produkziokoa** izango dela esan dezakegu. Izan ere; gu geu arduratuko gara produktuaren diseinuaz, sortzeaz edo eraikitzeaz, saldu eta banatzeaz.

Hala ere; argi dugu, proiektuan, **web-guneko eta on-line dendako jarduerak ere oso garrantzitsuak eta baliagarriak** izango direla gure enpresa aurrera joateko eta ezagutzera emateko.

Honez gain; hasiera batean; enpresako jarduera guztiak, diseinua, produkzioa eta salmenta, bazkideok burutuko ditugu gure instalazioetan. Hala ere; behin denbora bat igaro ostean, ikusiz gero, lan karga gehiegizkoa dela, produkzioarako lankideren bat kontratatuko genuke. Baina soilik teknologien ardurarako edo egurraren lanketarako.

Izan ere; gure enpresaren indarguneetako batzuk direnez etxean eginiko jaboia eta diseinu pertsonalizatua, arlo horietaz hasierako kideok arduratuko gara beti. Azken finean; ez dugu nahi gure enpresaren bihotza edozeinek jakitea.

